

# BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, apirilak 25



Muguruza  
Redondo

# Pilota txapeldunak



**Berria**  
garajea


Bergararako FORD zerbitzu ofizial eskusiboa  
MEKANIKA . ELEKTRIZITATEA . KARROZERIA  
San Lorentzo poligonoa. Tf. 76 22 43



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara  
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea  
babesteko gande*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**

# UGARTE

## AROSZTEGIA

### ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.  
Telefonoa eta faxa: 76 54 91



## BERRIGARA

HOTALDE JAUREGIA  
ESTO Bergara  
915 03 97 • Faxa: 76 08 19

Agintarazzailea:  
AGUN Elkartea.

Agintaria:  
Agintaria Azkarate  
Agintaria Mendibil  
Agintaria Elkoroberezibar

Agintaria:  
Agintaria Iturbe

Agintaria:  
Agintaria Romero

Agintaria:  
Agintaria Elortza

Agintaria zuzenketak:  
Agintaria Plazaola

Agintaria:  
Agintaria Laskurain

Agintaria:  
Agintaria Elortza

Agintaria:  
Agintaria Angel Elkoroberezibar

Agintaria:  
Agintaria Labaien

Agintaria:  
Agintaria Rodriguez

Agintaria:  
Agintaria Ortega & Jon Alvarez

Agintaria:  
Agintaria Ugalde

Agintaria:  
Agintaria Azkarate

Agintaria:  
Agintaria Xangorri taldea

Agintaria:  
Agintaria 600 ale.

Agintaria:  
Agintaria Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Agintaria:  
BERRIGARA

Agintaria:  
Agintaria gordailua:

Agintaria:  
Agintaria 650/91

Agintaria:  
Agintaria 650-6599

Agintaria:  
BERRIGARAK ez du bere gain

Agintaria:  
Agintaria aldizkarian adierazitako

Agintaria:  
Agintaria iritziaren erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako  
Aldizkariaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jaurlaritzaren Kultura  
Aldizkariaren laguntza jaso du


## Z E B E R R I D A ?

## IÑAKI SANJOSE

### Zezenzaleak taldekoa

- Zeintzuk izango dira aurtengo txekorketako toreroak?

- David Calleja getxotarra eta Salamancako Jose Luis Barrero etorriko dira aurten eta biek Ignacio Lopez Chavesen ganadutegiko txekorrak torereatu beharko dituzte. Txekorketa maiatzaren 3an aurkeztuko dugu zurrerik eta esan behar da aurtengo kartela Abdon Juaristik amaitzeke laga zuen koadroaren bozetoa izango dela. Bestalde, nobedade bezala, Azpeitiako Udal Musika Banda etorriko da txekorketara eta egun horretan herri bazkaria antolatu nahi dugu Gaspar jatetxean, koadrilei eta nahi duten guztiei zuzenduta. Txekorketaren sarreraren prezioei dagokienez, sarre-



rak 2.200 eta 500 pezeta bitartean salduko dira. Era berean, entzierroak eta enbolatuak ere antolatuko ditugu.

- Bihar, zapatua, zenbat lagun joango zarete Biasterira?

- Autobus bat irtengo da eta Biasterin Santamaria anaien ganadutegia bisitatzeko asmoa dago. Txekorrak txuliatzeko aukera ere izango da.

**“Txekorketaren egunean, maiatzaren 18an, herri bazkaria antolatu nahi dugu”**

## I T U R R I O N E T I K

### Maiatzaren 16an hasiko diren Pazkuetako programa prest dago

Dagoeneko prest dago aurtengo Pazkuetako egitaraua.

Bideberriko kontzertuei dagokienez, ostiralean *Undersbakers*, *The lazy sundays*, *Purr* eta *Manta Ray* taldeak izango dira; zapatuan *X milk*, *Little Fish*, *Amphetamine Discharge* eta *Subterranean kids* eta, azkenik, astelehenean *Akausazte*, *Lili moon* eta *Dut*.

Espaloian eta Plazan ere dantzaldiak izango dira. Ostiral gauean Gozategi's Blai taldearekin jaialdia izango da Frontoian, zapatu eguerdian sukaldaritza lehiaketa; eta txekorketa eta Euskadiko Dantza Txapelketa domekan. Aurtengo jaiek 12 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute.

E S A N  
D U T E

“Dantza tradizionalak folklorista hutsa izatearen etiketa duela ematen du eta nik hori baztertzea nahiko nuke. Badirudi dantza tradizionalaz hitzegiterakoan jendeak txuriz jantzita, txapela eta gerrikoarekin imajinatzen zaituela eta ez da derrigorrez horrela izan behar”.

**EDU MURUA**  
Dantzaria  
EGIN

“Baserritarren profesionalizazio handiagorantz jo behar dugu, baina salmenta zuzenean diharduten esplotazioak ahaztu barik. Esnearen kasuan, esate baterako, ados gaude Iparlaten lanarekin eta baserritarrek 60 eta 100 behi bitarteko esplotazioetara jo behar dute. Hala ere, ez da bakarrik esplotazio intentsiboa izan behar, euren yogurrak edo behi-gaztak egin eta zuzenki saldu ditzaketen esplotazio txikiagoei ere laguntza eman behar zaie”.

**BALENTIN GABILONDO**  
Gipuzkoako EHNEko  
presidentea  
EL DIARIO VASCO





**EL ESCANDALO DE LARRY FLYNT**

Eguakitza: 22:30  
Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**JOVENES Y BRUJAS**

Zapatua: 17:00, 19:30.

**Zinea**

▼▼ **Milos Forman**  
zuzendari ospetsuak (*Alguien volo sobre el nido del cuco*, *Amadeus*) eginiko azken filmea saritu egin zuten Urrezko Globoetan eta baita Berlingo Zine Jaialdian ere. Adierazpen askatasuna aldarrikatuz, pornografian oinarritutako inperio bat sortu zuen **Larry Flyntek (Woody Harrelson** aktorea) 70eko hamarkadan Estatu Batuetan. Baina kontrakoak ez zitzaizkion inoiz falta izan...

▼▼ Haurtzaro zaila izan duen *Sarah* gaztea Los Angelesera joango da bizitzera bere gurasoekin, bertan institutuko azken urtea egiteko asmoz. *Nancy, Bonni*, eta *Rochelle* izeneko lagunekin batera, laurek botere bereziak dituztela ikusiko dute. Baina botere horien arriskuaz ere ohartuko dira... **Robin Tunney, Fairuza Balk, Neve Campbell** eta **Rachel True** aktoreekin.

**Deiak**

▼ **1943**an jaiotako anaiarte-ko eguna maiatzaren 1ean. 13:15etan meza Santa Marinaran eta 14:30etan bazkaria Antxonin. Izen-emateak 76 22 90 edo 76 16 13 telefonoetan.

▼ **1965**ean jaiotako anafaria bihar zapatua, hilak 26, gaueko 10etan Zabala jatetxean. Arratsaldeko 7etan Pol-Polen elkartuko dira. Izena eman ez dutenak bertara ager daitezela.

▼ **Margoak.** Camino Mugerza margolariaren lanak Nahikarin.

▼ **Euskal Eskola Publikoa**-ren jaia domekan, hilak 27, Donostian, goizeko 10etan hasita.

▼ **Odol ateraldia** eguastenean 18:30etan Seminarioko lokalean.


**Ogia**

▼ **Domeka 27:** Ogizun.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 25:** Camacho.
- ▼ **Zapatua 26:** Puy.
- ▼ **Domeka 27:** Puy.
- ▼ **Astelehena 28:** Guallar.
- ▼ **Martitzena 29:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 30:** Mozos.
- ▼ **Eguena 1:** Camacho.

▼▼ **Benito Lertxundi** kantariaren emanaldia izango da gaur eguakitza, gaueko 10:30etatik aurrera Bergarako Udal Pilotalekuan, Aranzadi Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan. Oriotarrak *Hitaz oroit* bere azken diskaren kantuak eskeiniko ditu. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira.



**Agirrebeña JATETXEA**

**Labegaraietako jaixetan ondo pasau!!**

Ibarra kalea, 2 • Tf. 76 20 38 • BERGARA




# Auzoetako jaiak

## Jaiak astebukaeran Labegaraietan eta Elorregin

**Astebukaera** honetan herriko bi auzotan jaiak izango ditugu. Datorren hasteko zubia dela eta, aurten zertxobait aurreratu dira Labegaraietako jaiak. Horrela, bihar, larunbata, arratsaldeko 4etan, etxafleroen jaurtiketa eta kanpai hotsez jaiei hasiera emango zaie eta ordu berean II. Futbolin Txapelketa jokatu da. Futbolinerako izenematea orduerdi lehenago itxiko da. Agirrebeña jate-txean, berriz, mus txapelketaren XXI. edizioa jokatu da zapatu arratsaldean 4etatik aurrera. Irabazleek bildotsa, txanpaina eta trofeo bana jasoko dute, bigarrenek urdaiazpikoa, txanpaina eta trofeoak eta, azkenik, hirugarren sailkatzen direnentzat bi untxi, txanpaina eta trofeoak izango dira.

Gauean, 11etan rock jaialdia izango da Labegaraietan Exkixu, Latzen, Parasitos eta Nuevo Catecismo Catolico taldeekin. Sarrera doan izango da. Eta goizeko 5etarako ohizko galtzontzilo eta kulero lasterketa iragarri da.

Aurtengo jaiek 2 milioi pezeta inguruko aurrekontua daukate eta jai



Nuevo Catecismo Catolico taldea Labegaraietan izango da zapatu gauean.

batzordeko kide batek azaldu digun bezala, boletto salmenta, etxez etxe jasotako dirua eta Udalaren laguntzari esker osatu da aurrekontua. Hogeita bost bat gazte izan dira lanean aurtengo Labegaraietako jaiak aurrera atera ahal izateko eta rock kontzertua egun batzuk aurreratu da, datorren hasteko zubian jende askok alde egingo duela pentsatuz. Orain asko entzuten ari diren taldeak ekartzea lortu dute eta jai batzordekoek bihar Labegaraietan jende ugari biltzea espero dute.

### Manu Iztueta Elorregin

Elorregiko San Prudentzio jaiek ere aurrera egingo dute astebukaeran. Bihar, zapatua, eguerdiko ordu bietan, auzo bazkaria izango da Alkartasuna elkartean eta jarraian Mendia eta Erribera jota kantarien saioa izango da. Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagari-kano bertsolariak ere ari-tuko dira Elorregin eta gaueko 10etatik aurrera, berriz, Manu Iztueta bergarar soinujoleak alaitutako erromeria izango da.

Domekan, goizeko 11etan, Alai abeslari taldeak lagundutako meza nagusia izango da eta eguerdiko 12etan Barrena-Oruesagasti eta Muruamendi-Orasagasti eta Muruamendi-Osa II.a bikoteen arteko pilota partidua jokatu da. Ondoren, Moises Aspiazu dantza taldearen eta Alai taldearen saioak izango dira. Elorregiko jaiei astelehenean, San Prudentzio egunean, emango zaie bukaera. Meza santua izango da arratsaldeko 7etan.

Beraz, asteburuan jai giroan primeran non pasatu badago.

**ONDO PASAU JAIXETAN!**

**JAUNARTZEAK, EZKONTZAK,  
DESPEDIDAK, KARTA,  
EGUNEKO MENUA,  
LOGELAK.**



**ZABALA**

JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta BERGARA.  
Telefonoak 76 20 07 - 76 42 57



### S. Martin Agirre ikastetxean aldatu egin dira gauzak

Bergarara bizitzera etorri nintzenezan (duela sei bat urte) harrিতa gelditu nintzen kaleko jendeak (nagusiek zein gazteek) eskola publikoiei "Nazionalak", "Elementala" izenak ematen baitzizkien.

Urte hauetan ohitura honen zergatia oso garbi ikusten ez banuen ere, azkenean aurkitu dudan arrazoi bakarra zera litzatekeela uste dut: urte luzeetan eraikitako inertzia (pentsamoldeak aldatzeko iharduerarik eza) apurtzeak beste urte luze batzuk ere behar dituela. Bestela ez dut ulertzen garai batean "Escuelas Nacionales" izan zirenak orain San Martin Agirre Ikastetxea izanda eta honek dakarren guztiak ez duen kaleko jendearen eritzia aldatu.

Hona hemen, ene ustez Herriak Eskola Publikoarekiko sortu duen inertzia hori apurtzen hasteko lagungarri izan daitekeena, izan ere hau da San Martin Agirre Ikastetxearen egoera:

- Eskolak B eta D ereduan (Euskara beste ikasgai guztien ardatza delarik) ematea.
- Euskal kultura bultzatzea, bultzatzen den bezala.
- Guraso erdaldunek euskalduntzeko duten aukera eta egiten duten ahalegina: eskolan bertan antolatuta duten gau-eskola.
- Jatorriz ikasle erdaldunei euskalduntzeko eta euskaldunekin kulturalki integratzeko ematen zaizkien aukerak.
- Herriko edozein umek inolako salbuespenik gabe: ekonomikoa dela, arraziala dela, konfesionala dela..., matrikulatzeko eta beste guztiakin integratzeko aukera izanda.

- Gero eta guraso eta ikasle euskaldun gehiagoren presentzia eta benetako parte hartzea (Guraso Elkarteetan, Biltzar Nagusian, Ihardunaldi Pedagogikoetan...). Saia gaitzen geu ere aldatzen.

F. Z. (72.253.005)

### Eskerrik asko

Bazkari eder batean Barrenkalen bizi garenon arteko topaketa ahalbideratu duzuen guztioi, batez ere Rafa Osuna eta Wody Olabarria sukaldariei egindako lan guztiagatik eta Artatse elkartekoei izandako eskuzabaltasunagatik, baita ere Duniri egindako lanagatik eta utzi digun materialagatik eta trikitilarietako edo hemen eta han jardun duzuen guztioi.

### BARRENKALEKO BIZILAGUNAK

### Plataforma solidarioa

Langabezia, aspaldian, gure gizarteko mamuetako bat bihurtu da. Lanean ari direnak ere, langabeziaren mamuz mehatxaturik bizi dira. Enpresak, multinazional erraldoietan biltzen diren bitartean, irabaziak haunditzeko nahian, langabezia geroz eta ezagunagoa egiten ari da gure gizartean. Egoera honek, gizarte mailaketa sakonagoa eragiten du eta pobreziak, gizarte horren zati handi bat betetzen du; Euskal Autonomi Elkarteetan, muturreko pobrezia 45.000 senditara heltzen da.

Pobreziaren eta honek dakarren biztanleriaren eskuditzearen aurka, "Langabezia eta Pobreziaren Aurkako Plataforma Solidarioa" sortu da. Plataforma honek, Lege Ekitimen Herritar bat aurkeztu nahi du Eusko Legebiltzarrean, "Gizarte Eskubideen Eskutitza" deitzen dena.



Eskutitzak, oinarritzko diru-sarrerara baterako eskubidea defendatzen du; banakako eskubide bat, eskusio soziala ekiditzea eta bizi maila duin bat mantentzen lagunduko lukeen eskubidea.

Baina hau guztia Parlamentuan eztabaidatzeko 30.000 sinadura behar dira. Asmo horrekin, eta inizatiba honen berri emateko, datorren martitzenean, hilak 29, Antzuolako udaletxeko pleno aretoan "Lana banatu, aberastasuna ere bai" hitzaldia izango da, arratsaldeko 7:30etan. Hizlaria Tomas Etxabe izango da.

### ANTZUOLAKO GIZARTE ESKUBIDEEN GUTUNAREN ALDEKO EKIMENA.

(AIT, AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA, ARROLA, KARITAS, LANGLE KOMISIOAK, ELKARRI, ESKOLAKO IRAKASLE ETA ESKOLA KONTSEILUA, LAB, STEE-EILAS)

## Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ





**Langabezia eta pobrezia**

Asteazken honetarako deituta zegoen, langabezia eta pobreziaren aurkako plataforma Bergaran sortzeko bilerara, jende gutxi azaldu zenez, berau atzeratzea erabaki zuten. Bileran maiatzaren 8an egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Helburua Eusko Legebiltzarrean lege ekimen herritar bat aurkezteko, Euskal Autonomi Elkarte osoan 30.000 sinadura biltzea da. Antzuolan ere plataforma sortu nahi dute eta ekimen horren berri emateko, hitzaldi bat antolatuta da datorren martitzenean 19:00etan Udaletxean. Tomas Etxabe "Lana banatu, aberastasuna ere bai" gaiaz mintzatuko da.



Fagor ontzi-garbigailuen biltegia zegoen industri pabiloian kokatuko da lantegi berria.

**Fagorrek eta ITTk, frenoak egiteko lantegia jarriko dute San Juanen**

**Fagor** Ederlanek eta ITT enpresa amerikarrak autoendako frenoak egiteko enpresa jarriko dute martxan irailean San Juanen. Horrela jakinarazi zioten Victoriano Gallastegi alkateari hil honen hasieran Udaletxean egingo bileran. Enpresa berriak 36 lanpostu berri sortuko ditu eta asmoa irailean probei ekin eta abenduan produzitzen hastea da.

ITT liderra da European frenoen merkatuan eta Fagor Ederlanek diskoen eta portamangeten alorrean parte hartze nabarmena du Europako merka-

tuan. Enpresa berriak Volkswagen Golf, Audi A3, Skoda eta Seat Toledo autoentzako disko-balaztak egingo ditu. Helburua, Volkswagen taldearentzat urtean bi milioi t'ardi disko-balazta egitea da; erdia San Juango lantegian egingo litzateke eta beste erdia Alemanian.

Enpresa berriko ordezkarien eta alkatearen arteko bileran, egingo diren inbertsioak eta aurreikusten diren salmentak eta irabaziak jasotzen dituen txostena eman zitzaion alkateari. 8 urterako egitasmoa da eta ber-

tan jasotzen denez, 1.558 milioi pezetako inbertsioak egingo dira 2003. urtera arte. Epe horretan aurreikusten den salmenta kopurua 18.213 milioi pezetakoa da eta irabazi gordinak, ostera, 1.473 milioi pezetakoak izatea espero dute.

Esan bezala, 36 lanpostu sortuko dira eta lantegia San Juanen kokatuko da, hain zuzen ere, Fagor eta Vaillant enpresa alemanak sortutako Geyster Gastech lantegiaren ondoan, lehen Fagor ontzi-garbigailuen biltegia zegoen industri pabiloian.

**HILDAKOAK**

**Aitor Sanz Garitano**

Apirilak 19, 33 urte.

**Jose Cot Conti**

Apirilak 19, 52 urte.

**Purificacion Gomez Casado**

Apirilak 21, 83 urte.

**JAIOTAKOAK**

**Oskar Perez Lijo**

Apirilak 11

**Asier Azkargorta Barrutia**

Apirilak 15

**Olatz Alberdi Etxeberria**

Apirilak 17

**Marine Jauregi Azkargorta**

Apirilak 18

**Joseba Vicente Fernandez**

Apirilak 18



**PINTURAS BERGARA S.L.**

• INDUSTRIARAKO PINTURAK

• APAINKETARAKO PINTURAK

• GARBIKETAK

• ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefona eta faxa: 76 11 40



### Txilintxa abesbatza

Soraluzeko Ezoziko Ama eta Musika Eskolako abesbatzak eta Bergarako Txilintxak kontzertua emango dute zapatuan 20:30etan Santa Marinaran. Hiru abesbatzek estilo eta autore ezberdinen lanak eskainiko dituzte eta Gorka Cuesta organujole donostiarrak Bach eta Krebsen obrak joko ditu. Sarrera doan izango da.

### Alkate intsumisoa

Jose Mari Sarasola Anoetako alkatea eta Ipintza institutuko irakaslea ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik eta herriko gazteen zerrenda ez emateagatik epaitu zuten astelehenean Donostian. Hori dela eta, Jose Mari Sarasuari elkartasuna adierazteko, Ipintza institutuko ikasle eta irakasleek protesta ekitaldia egin zuten astelehenean errekreo orduan institutuaren kanpoaldean.

### 87 urtekoei omenaldia

San Joxepe jubilatuen elkarteak, aurren 87 urte betetzen dituzten bergararrak omenduko ditu domekan. 11:00etan meza izango da San Pedron eta 12:15etan omenaldia jubilatuen egoitzan. Bertan, opariak banatuko zaizkie 87 urte betetzen dituztenei eta jubilatuetako koruak abestuko du. Txistorra egongo da bertaratzen direnentzat, eta guztia trikitilariak alaituta.

### Sukaldaritza lehiaketa

Pazkuetako sukaldaritza lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea maiatzaren 5ean amaitzen da. Interesa duten elkarte gastronomikoek Kultur Etxeko 77 91 58 telefonora deitu dezakete.

### Elkorori ongi-etorria

Jose Luis Elkorori ongi-etorria egin zitzaion joan zen eguen iluntzean San Martin plazan. Txalapartaren soinuaz egin zitzaion harrera. Ondoren, gartzelan dauden preso bergararren senitartekoek lora bat eman zioten preso bakoitzeko; jarraian, hitz batzuk luzatu zizkien bildutakoei. Elkorok eskerrak eman zizkien bildutakoei eta kanpoan edo gartzelan egon diren

bitartean mahaikideei elkartasuna adierazi dien guztiei, eta adierazi zuen gartzelan presoek bizi duten egoera benetan latza dela eta esaten den guztia egia dela. Ekitaldiaren ostean, manifestazioa egin zen herriko kaleetatik zehar.



### ■ Gorlako kantina adjudikatu da

Jose Antonio Azkarate bergararrari adjudikatu zaio Gorlako kantina. Lau eskari aurkeztu dira Udalak egindako lehiaketa publikora eta azkenean Jose Antoniori eman zaio kantinearen ustiaketa urtebeterako. Orain 1.789.000 pezetako inbertsioa egingo du Udalak kantina barrutik ekipatzeko. Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro departamenduak ordainduko du kopuru hori.

### Aranzadi Ikastolaren kultur hamabostaldiari agur

Astebukaeran emango zaio amaiera Aranzadi ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatu den kultur hamabostaldiari. Gaur gaueko 10:30etan,



AITZIBER ARETXAGA

Benito Lertxundiren kantaldia izango da Udal Pilotalekuan; bihar goizean, ostera, karreretako eta auto zaharren erakusketa Seminarioko patioan eta arratsaldeko 7etan, Moises Azpiazu dantza taldearen kalejira eta dantzak. Domekan, azkenik, herri bazkaria izango da Kolumna patioan.



**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**C.B.**

**ELEKTRIZITATE**  
**MATERIALEN**  
**SALMENTA ETA**  
**INSTALAKUNTZA**

**Fleming Doktoarea, 5**  
**☎ 76 19 94**

**LARREA**

**TABERNA**

**Kale Barren, 17**  
**ANTZUOLA**



## Langileen eta zuzendaritzaren arteko kontaktuak bideratu dira

*Tavesako zuzendaritzak negoziazio talde berria eratu du*

Joan zen astean zuzendaritzaren negoziazio taldeak dimisioa aurkeztu ondoren, Txomin Arizmendi abokatu donostiarrak ordezkatu du Tavex taldeko zuzendaritza, Algodonera eta Tavesako langileekin negoziatzeko.

Gogoratuko duzuen bezala, Enrique Garran Tavex taldeko administrazio kontseiluko presidentea eta bere taldeak, dimisioa aurkeztu zuten joan zen ostegunean, langileen aldetik mehatxuak eta presioak jasan zituztela argudiatuz.

Gauzak horrela, Narbaiza ehungintza enpresako auzian jardun duen Txomin Arizmendi abokatu izango da langileekin negoziatzeko duena. Asteazkenean lehen kontaktua izan zuen langileen

ordezkariekin. Bertan, langileen eskaerak ezagutzeko aukera izan zuen eta zuzendaritzak, arazoarekin arduratuta, konponbide batera heltzeko alde zuzeneko borondate ona zuela esan zien.

Algodonera eta Tavesako langileek 35 egun bete dituzte huelgan gaur. Negoziatzeko lehen kontaktuak izan badira ere, protesta ekintzekin jarraitu dute eta euren eskaerak lortu arte borrokan jarraituko dutela esan dute. Lantegi aurrean piketeak jarri dituzte, eta joan zen zapatuaz geroztik Udaletxeko arkupetan izan dira. Pleno Aretora doan atarian gau eta egun egon dira. Gaur goizean, oster, protesta egitera Bilboko burtsara joatekoak ziren.



Udaletxeko arkupetan ere protesta egin dute aste honetan Algodonera eta Tavesako langileek.

## Amazonasi buruzko hitzaldia

Amazonaseko gune indigenei buruzko hitzaldia emango dute Joao Ferreirak, Satere Mawe tribuko biltzar orokorrekoak eta Cristina Alvarez sendagileak, gune indigenetako osasun proiektuaren koordinatzaileak. Hitzaldia Bartzelonako Plenty gobernuz kanpoko erakundeak estatuan zehar antolatu dituen hitzaldien barruan kokatzen da eta Txapa Irratiak antolatu du. Brasilgo Amazonaseko talde indigenen egoera politikoaren inguruan mintzatuko dira gaur, ostirala, 19:30etan Kultur Etxean.

## Dantzari eguna Aretxabaletan

Deba bailarako dantza talde nagusiak bilduko dira domekan Aretxabaletan Dantzari egunean. Bergarako Xamatzekin batera, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Antzuola eta Soralezeko dantza taldeek hartuko dute parte, goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 7ak bitartean antolatuko diren ekitaldietan. Eguerdiko 12etan eta arratsaldeko 5etan dantza talde guztien emanaldia ikusteko aukera izango da herriko plazan.

## Antzuolako euskara

Idolaz euskara elkarteak Antzuolako euskaran idazteko ikastaroa antolatu du. Ikastaroak hiru aste iraungo du eta bi egun emango dira astero, martitzen eta eguenetan. Irakaslea Juan Martin Elexpuru izango da. Izena emateko lehenbailehen udaletxeko Euskara Zerbitzura edo herriko liburutegira joan behar da.

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

**AZPEITXI**

Aranerreaka, 13 behea ☎ 76 55 00

**Jatetxea**



# lazkoen antzeko 2.170 milioiko aurrekontuak onartu zituen udal gobernauak astelehenean

**1997ko** udal aurrekontuak onartu ziren asteleheneko Plenoan, hiruko gobernua osatzen duten EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botuekin. HBko Jesus Mari Garitanok aurrekontuen osaketan parte hartzeko aukerarik eduki ez izana, komisioetan aztertu ez izana eta aurrekontuak Pleno eguna baino hiru aste lehena go jaso izana salatu zuen. Victoriano Gallastegi alkateak, berriz, aurrekontuak osatzea gobernuaren zeregina dela, aurrekontuak aztertu eta alegazioak egiteko hiru aste izan dituztela eta batzarretan aztertu direla erantzun zion. Jose Antonio Etxeberriak eta Alvaro Esparzak, Hirigintzako eta Ongizate batzordeetako presidentek, alkatearen hitzak baieztatu zituzten. Oposizioko eta gobernuko kideen arteko eztabaida laburraren ondoren, eta aurrekontuak onartzeko botazioa egin aurretik, Pleno aretotik alde egin zuten Herri Batasunako zinegotziek.



Angiozarko frontoia konpontzeko 20 milioi bideratuko dira aurten.

## lazkoen antzekoak

2.170 milioi pezetako aurrekontua izango du Udalak 1997an, iaz baino %6,1 gehiago. Horietatik, 1.875 milioi Udalekoak dira, 233 Mizpirualde zaharren egoitzari dagozkie eta 62 milioi Udal Euskaltegiari. Udalaren zorra %18,9an geratu da (iazkoa %19,6koa izan zen).

Gastuei dagokienez, pertsonal gastuek (589 milioi) eta erosketak arrun-

tek (549 milioi) daramate zatirik haundiena eta iazko aurrekontuekiko %4,9 eta %10,1 igo dira. Interesak ordaintzeko, 139 milioi bideratuko dira, iaz baino %25,6 gutxiago; inbertsioetara, berriz, 186 milioi, iaz baino %4,4 gutxiago. Sarrerei dagokienez, zerga bidez 778 milioi batuko dira, iaz baino %6 gehiago eta Diputazioetik 889 milioi.

Aurtengo udal aurrekontuak, iazkoen antzerakoak dira eta gobernu taldearen helburu nagusia gastuari eutsi eta zorra murriztea izan da, horregatik txikiak dira, esate baterako, inbertsioetara bideratzen diren diru partidak. Inbertsioetarako diruen artean partida txiki asko aurreikusten dira aurten eta ez dago zati haundi bat hartuko duen partidarik. Garrantzitsuenetakoa, Angiozarko pilotalekua konpontzeko lehen fasean, aurten bideratuko diren 20 milioi pezetak.

## BALORAZIOAK

### VICTORIANO GALLASTEGI. EAJ.

“Udalaren finantza-zama murrizteko ahaleginetan, gastuari eta inbertsioei eustea izan da gobernu taldearen helburu nagusia. Pozik gaude aurrekontuekin, eta baita iazko ekitaldian egindako lanarekin ere. Udalaren zorra 18,9 puntura arte jeistea lortu dugulako”.

### JESUS MARI GARITANO. HB.

“Aurrekontuei buruz ezer gutxi daukagu esateko. Oraingoan ere, urtero moduan, baztertu egin gaituzte eta ezin izan dugu aurrekontuak osatzerakoan parte hartu; presupuestoak eginda zeudenean entregatu dizkigute”.

### JUAN MARI GARITANO. EA.

“Aurrekontuei baietza eman diegu, baina Udalaren zorra oraindik haundiegia da eta hori ez zaigu gustatzen. Aurrekontuei ezetza emateak hirukoa kolokan jartzea ekarriko zuen, baina hartutako konpromezuak direla eta, onartu egin ditugu”.

### ALVARO ESPARZA. PSE-EE.

“Aurrekontuen balorazio positiboa egiten dugu, zorra jeisteko ahaleginak egin direlako. Bestalde, aurreko ekitaldirako aurreikusita zegoen ia gutzia bete egin da, beraz, gestio ona egin da. Bestalde, finantza-zama ez da hain handia, legeak %25eko zorra izatea lagatzen duelako”.

## Udal aurrekontuak batzordeka



■ Pertsonala.	589.290.000.	(%31,4)
■ Zerbitzu orokorrak.	565.566.000.	(%30,1)
■ Auzoak.	184.554.000.	(%9,84)
■ Ongizatea.	160.000.000.	(%8,54)
■ Kultura.	120.000.000.	(%6,42)
■ Hezkuntza-euskara.	111.000.000.	(%5,94)
■ Kirolak.	85.000.000.	(%4,53)
■ Hirigintza.	60.000.000.	(%3,16)
■ <b>Guztira.</b>	<b>1.875.410.000.</b>	



## Genetika

## Klonazioa

**- Zer da klonazioa?**

- Bere izenak dioen bezala, klonak egitea edo, beste era batera esanda kopiak egitea da; hau da, sortzaile bakar batetik, bide asexualerik, genetikoki berdinak diren indibiduoak lortzea. Klonazioa burutzea zailagoa da sexu-ugalketa soilik duen izaki bizidunaren kasuan, hau da, goi mailako animalien kasuan. Oinarrizko ideia organismo emale baten zelula batetik beraren berdina den indibiduo lortzea da. Honetarako metodoa, funtsean, gorputzeko edozein zelularen (zelula somatikoa) nukleoa nukleorik gabeko zelula-arrautza batera sartzea da, indibiduo baten zelula somatiko guztiek informazio genetikoa berdina baitute.

**- Noiz hasi ziren lehendabiziko esperimentuak?**

- Orokorrean ezin da esan, segun eta zein eremu hitzegiten den. Goi mailako landareek sexu-ugalketa nahiz asexuala dutenez, era asexualerik ugaltzen direnean klonazioa

zio naturala ematen ari da; hala nola, tuberkuluak (patatak) eraiten ditugunean. Beste klonazio era bat aspalditik egiten diren kimuak eta txertoak dira. Eremu honetan, duela gutxi hasi da erabiltzen landareen klonazioa laborategian, ingurune naturaletik kanpo.

**- Eta goi mailako animalien kasuan?**

- Klonazio konplexuagoa da. Lehenengo espe-



**MAITE AUSIN**  
(Biologia-irakaslea)

rientzia 1952. urtean egin zen, igelekin, enbrioi gazteen nukleoa igelaren arrautzetan txertatuz. Igelaren arrautzak aukeratzearren arrazoia tamainaz handiak eta manipultzeko errazak izatea izan zen. 1979an saguekin ere egin zen esperimenturen bat, enbrioi

gazteen zelulen nukleoa zigoto (arrautza) baten txertatuz. Baina, dirudenez, ez ei zituzten benetako klonak lortu. Saguek klonatzeko arazo gehiago planteatzen dituzte, espezie honen zigotoen tamaina txikia delako eta kalterik egin gabe manipulatzea zaila egiten delako. Bi esperimentu hauetan txertatzeko erabili ziren nukleoa enbrioi gazteetatik ateratakoak ziren eta Dolly ardiaren kasuan, berriz, animalia heldu baten errapetik ateratakoak. Hori da nobedadea.

**- Nora bideratuko da klonazioa?**

- Momentuz, oinarrizko ikerkuntzara. Transgenikoak lortzeko metodoa ere bihurtu daiteke, baina, gaur egun, beste teknika batzuk daude hau lortzeko. Osasun arlora ere bideratu daiteke...

**- Nolako mugak jarriko zaizkio klonazioari?**

- Hutsune handia dago ingenieritza genetikoren inguruan. Hutsune hauek bete beharrekoak dira, baina hau astiro doa; besteak beste, ikertzaileen artean ez dagoelako adostasunik, eta bien bitartean, tira-bira ekonomikoak daudelako. Oraingoan, Britainia Handia da giza klonazioaren debekua legislatuta daukan herrialde bakarra.

## “Klonazioa burutzea zailagoa da goi mailako animalien kasuan”




Klonazioak zeresan ugari eman du Dolly ardiaren kasuagatik.

# Mila okindegia

Okindegia eta opildegia

Aranerreak, 2 BERGARA.



INAUGURAZIOA  
ostiralean, apirilak 25,  
7etatik 8etara

Zatoz,  
gonbidatuta zaude!



# Comercial Brunet - Husqvarna

*Eskerrik asko 18 urtean gudan jarritako konfidantzagatik*

**Ondo pasa Labegaraietako jaixetan!**



Comercial Brunet. Ozaeta 11. Telefonoa: 76 31 52  
Telefonoa eta faxa: 76 70 12

# GAMAK

## INFORMATIKAKO TRESNAK


Artzamendi, 1. 20570 BERGARA

Tlf.: 76 56 85

Faxa: 76 55 97

Mobila: 908 111 891

- INFORMATIKAKO KLASEAK
- ENPRESETARAKO MANTENIMENDU KONTRATUAK
- ORDENAGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETAK
- DENDETARAKO TPVak
- ITERNET: FUTURNETEN BANATZAILE OFIZIALAK GARA



### KONEXIOAK

- |   |  |                   |
|---|--|-------------------|
| • Hilabeteko konexioa   |  | 3.000 PTA         |
| • Seihileko konexioa  | +Net Commander-a<br>edo Anyware antibirus lizentzia bat<br>edo 1 MBeko orrialde pertsonala | 15.000 PTA        |
| • Urteko konexioa, nabigazioari buruzko Internet ikastaroarekin | + Net Commander-a eta Anyware antibirusa   | 30.000 PTA        |
| • E-Mail buzoi gehigarria (buzoi ugari konexio bakarrarekin)    |  | 1.000 PTA         |
| • Hilabeteko RDSI konexioa                                      |  | 9.000 PTA         |
| • IP helbide tinkoa   |  | 90.000 PTA/urteko |
| • Urteko RDSI konexioa+Net Commander-a                          |  | 90.000 PTA        |
| • Publizitate panelak (WEBak sortzen ditugu)                    |  |                   |



# Lokalak aztergai

## Udal lokalen zesioa arautu nahi da



Herriko talde gehienek ez dute inolako zesio-kontraturik sinatu Udalarekin. Artxiboko argazkian, Simon Arrieta zeramika taldearen lokala.

**Bergarako Udala herriko kultur eta kirol taldeek darabiltzaten lokalen egoera aztertzen aritu da azken hilotan. Orain, lokal horiek behar den moduan egokitzeko lanen aurrekontua egin, lehentasun batzuk zehaztu eta berritze lanekin hasi nahi da. Behin lan horiei amaiera eman eta gero, berriz, Udalak lokalen zesioa arautzeko asmoa dauka eta horretarako irizpide batzuk zehaztuko dira lokalak herriko taldeen artean banatzeko orduan.**

**U**dalaren aginduz, Jose Mari Exeberria udal aparejadoreak iaz ekin zion lokalen azterketari. Udalak herrian dituen lokal guztiak aztertu ditu Etxeberriak eta bere hitzetan, "kasu gehienetan ez da obra haundiegirik behar dauden lokalak hobetzeko, nahiz eta zenbait kasutan lokal horien erabilerara ez gomendatu, gutxienez baldintzak ere betetzen ez dituztelako. Gaiantzekoetan, berriz, obra txikiak nabikoa izango dira beharrezko neurri minimo horiek be-

*tezeko: batean, komunak konpondu; bestean suitzalgailuak jarri, etabar. Horrelako lanak egin beharko dira lokal gehienetan. Ez dut uste aurrekontua oso haundia izango denik baina oraindik ere ez da lan hori egin eta zain gaude".*

Obra txikiak behar dituzten lokalen kasuan Udalak erabiltzaileei eskatuko die lanak egiteko. Proiektu honen arabera, Udalak beharrezko materiala jarriko luke eta pintaketa lanak eta horrelakoak lokalen erabiltzaileek egingo lituzkete.

### Lokalen zesioa arautu

Hemendik pare bat astera lanen aurrekontua eskuartearen izatea espero dute kulturako arduradunek. Aurrekontu horiek onartu bezain laister hasiko liriteke lokalak hobetzeko lanak. Koldo Pereira kultur zinegotziaren arabera, "batetik, lokalen gaur egungo egoera eza gutu nahi izan dugu egindako azterketarekin eta, bestetik, datozen asteetan, lokalen zesioa nolabait arautzeko asmoa daukagu. Orain arte tal-



## Udal lokalak

LOKALA	KALEA	m <sup>2</sup>	ERABILTZAILEA	PREMIAK
•SINDIKATU ZAHARRA	Zabalotegi	88	Pol Pol argazki taldea	
•IGERILEKUA	Boni Laskurain	15	Spot, Facking what	Ez da komeni erabiltzea
•IPINTZAKO ZELAIA	Boni Laskurain	5.760	Bergara kirol elkarte	Emergentzia argiak, suitzalgailuak
•GARTZELA ZAHARRA	Juan Irazabal	200	Jardun	
•GARTZELA ZAHARRA	Juan Irazabal	59	Taun-Taun	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•MIZPILDI	Mizpildi	105	Taun-Taun	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•ZUBIETAKO ESKOLA	Zubietako	92	Kukuma, Kobok, Txalaparta, EHE	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•IRIZAR JAUREGIA	Barrenkalea	50	Surra irratizaleak	
•IRIZAR JAUREGIA	Barrenkalea	66	Pintoreak, taila	Ez da komeni erabiltzea
•ZABALOTEGI	Zabalotegi	11	Suburbia rock taldea	Ez da komeni erabiltzea
•ZABALOTEGI (behea atzetik)	Zabalotegi	78	Xake taldea	Suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•ZABALOTEGI (behea atzetik)	Zabalotegi	133	Simon Arrieta tailerra	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa, keen irteera
•ZABALOTEGI (sotoa atzetik)	Zabalotegi	26	Ibaiak orkesta	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•ZABALOTEGI (sotoa atzetik)	Zabalotegi	38	Grabazio musikalak	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•ZABALOTEGI (sotoa atzetik)	Zabalotegi	14	Txapa irratia	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•ZABALOTEGI (behea aurretik)	Zabalotegi	45	Pintoreak	Suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•ZABALOTEGI (behea aurretik)	Zabalotegi	41	Taila	Suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•ZABALOTEGI (behea aurretik)	Zabalotegi	36	BOTA	Margotu, suitzalgailuak, emergentzia argiak, instalakuntza elektrikoa
•IGERILEKUA	Boni Laskurain	50	Txolarte eta Igeri elkarte	Suitzalgailuak, emergentzia argiak

de gebienek inolako erreglamentu barik funtzionatu izan dute eta egoera hori aldatu nahi dugu. Lokalak Udalaren patrimonioa direnez erabilera arautzea ezinbestekoa da. Udaleko lokalak bat eskuratzen duten taldeentzat baldintza batzuk jartzea komeni da, baina oraindik bo-

rradore bat besterik ez dugu egin". Gure datuen arabera, Udaleko lokalak bat erabiltzen duten taldeen artean, Simon Arrieta zeramika taldea da Udalarekin hitzarmen bat sinatu zuen bakarra, 1989 urtean. Azken urteotan ez zaie inolako zeso-kontraturik egin lokalak bat hartu duten taldeei eta orain

lokalen kontrol handiagoa izateko beharra dagoela ikusi du Udalak. Taldeek lokalaren erabiltzen ordua, erabiltzaileen kopurua eta adina edota aktibitatea zehaztu behar dute Udalaren aurrean. Era berean, noizean behin lokalak errebisatu egingo ditu Udalak zein egoeratan erabiltzen di-

ren ikusteko. Bestalde, orain arte herriko kirol eta kultur taldeek lokalak musutruk erabili badituzte ere, hemendik aurrera gutxienez argindarra euren kontura izatea nahi du Udalak. Gobernazio eta Kultura batzordeek seguroen gaiarekin ere nahiko buruhauste izan dituzte eta gai hori guztiz argituta utzi nahi dute. Koldo Pereirak azaltzen digun moduan, "seguroarena zehaztu nahi dugu momentuan kontu hori batera arautua ez dagoe-

**“Lokalen erabilera arautzea ezinbestekoa da; lokalak bat eskuratzen dutenentzat baldintza batzuk jartzea behar da” KOLDO PEREIRA**



## “Komenigarria izango litzateke udal lokaletan egiten den lana ezagutzea, horren jarraipena egitea” RUFINA OLASAGASTI

*lako. Eta zerbait gertatzen bada, komeni da norbait horren erantzule izatea”.*

### Talde asko lokal eske

Asko dira Udalaren lokalak erabiltzen dituzten taldeak. Behin gauza horiek denak finkatzen direnean, Udalak deialdi bat egin nahi du gaur egun lokalen bat eskuratzeko interesa duten taldeek zehatz-mehatz zenbat diren ezagutzeko. Koldo Pereirak emandako datuen arabera, *“lehen ere mordoxka bat geratu ziren lokalen bat hartu ezinik eta komenigarria izango*

*litzateke oraindik ere interesatuta dauden ala ez jakitea. Ez dut uste denendako lokalik egongo denik, baina hor aukera ezberdinak aztertu beharko ditugu, antzerako aktibitateak dituzten hainbat talde elkarrekin jarriaz, sistema errotatibo bat antolatuaz..., ikusi egin behar”.* Hasiera batean, orain lokala izan eta lanean jarraitzeko interesa duten taldeek lehenetasuna izango lukete, baina horren ordainean Udalak kontraprestazio batzuk eskatuko dizkie. Rufina Olasagasti udal kultur jestoreak azpimarratzen duen moduan, *“jendeak ulertu behar du*

*lokal horiek ez direla denbora pasatzeko eta komenigarria izango litzateke lokaletan egiten den lana nolabait ezagutzea, horren jarraipena egitea”.* Bestalde, posible den kasuetan behinik behin, orain lokala duten taldeei lokal berean jarraitzeko aukera emango zaie.

Udalak ere badu beste kezka bat: gaur egun Udalarenak ez diren hainbat lokaletan ere talde batzuk ari dira lanean eta arazo horri soluzioa topatzeko beharra ikusten da. Koldo Pereirak esaten digunez, *“garai batean, adibidez, Seminarioko lokal batzuetan hainbat*

*talde basi ziren lanean eta bertan jarraitu dute, nabiz eta zenbaitetan baldintza onenetan ez izan eta gainera, inolako baimen ofizialik gabe, azken batean lokal horiek Seminarioarenak, estatuarenak direlako. Lokal hauekin ez da hain erreza izango irtenbide legal bat topatzea, baina ahal den neurrian gauzak argi eta garbi lagatzeko abaleginak egingo ditugu. Soluzio bat lokal horiek libratzea eta bertan ari diren taldeentzat beste lokalen bat topatzea izan daiteke, baina hori ez da hain erreza; azken batean, horrek lokal berriak lortzea suposatzen duelako. Baina, gauza denetan bezala, daukazuarekin jokatu beharra daukazu eta ikusi egin behar zela konpontzen dugun hori”.*

## Langileok eraso bortitzak jasaten ari gara: PENTSIO MURRIZKETAK, LAN ERREFORMA

**Honen aurrean mobiliza gaitezen**


**MAIATZAREN 1ean, eguerdiko 12etan  
Arrasateko Seberotik  
ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA**

**MAIATZAREN LEHENA**






# Udal aurrekontuak onartu direla eta, zuk zeuk zertan gastatuko zenuke dirua?



**Juan Lopez**

Ez dakit, pasealekuak konpontzen, goiko trenbidea ere txukundu daiteke...



**Iñaki Martinez**

Jubilatu edo langabetuentzat laguntza gehiago eman behar dela uste dut, beharra dutenendako laguntza sozialak gehituko nituzke.



**Lurdes Errasti**

Nik uste dut gazteei gehiago lagundu behar zaiela, lanik ez dutenei ere bai... Auzoak ere piskat baztertuta daude, kaso gutxi egiten zaie.



**Maritxu Olasolo**

Herrian gauzak egiteko badaudela ikusten dut: gazteendako lokalen bat, eurentzako aktibitateak...



**Begoña Garmendia**

Nire ustetan gauza sozialetan: umeentzako, zaharrentzako..., kulturaletan ere bai, kulturalak eta sozialak batez ere. Obretan nahiko gastatu da aurreko urteetan.



**Asier Bardezi**

Gazteentzat eta kirolarentzat diru gehiago emango nuke. Obrak? Komun publikoak jartzea beharrezkoa dela uste dut.

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimizen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloi edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

## Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

## LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

## A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE





## Gurasoak eta ikastola

Orain dela hogeita-amar bat urte, zorionez, Bergarako guraso talde bat, herriarentzat ikastola bat sortzeko helburuarekin gogor hasi zen lanean, herriko haurrek aurrerantzean euskaraz ikasi eta bizi izateko aukera izan zezaten; gaur egun hain aipatua den euskararekiko normalizazioaren aldeko lehen urratsak ziren haiek.

Era guztietako oztopoak gaingiduz, euskararen alde ziharduten bi eskolak batu, eta han bideratu ziren Madrilerantz baimena jasotzera; honela sortu zen Aranzadi Ikastola (jakin dudanez, hasiera batean Koldo Eleizalderen izena proposatzea pentsatu zuten gurasoek, baina abertzale sutsua zela eta, Madrilgo gobernuak jarriko zituen oztopoak aurreikusirik, beste bergarar ospetsu baten izena aurkeztu zuten, Telesforo Aranzadi). Ikastola aurrera ateratzeko irakasleak behar zituzten, eta garai hartan honelako proiektu batean sinistu eta parte hartzeko prest agertu ziren haiei eskerrak eman beharrean gaude, euskaraz kalitatezko irakaskuntza bat eskaintzeko gaitasuna izan zutelako. Beraz, denon inplikazioari esker lortu zen ikastola aurrera ateratzea.

Seme-alabak ikastolara bidaltzeak kontzientziario maila handi bat eskatzen zuen, hauen formazioa eta, beraz, etorkizuna jokoan baitzegoen; eta honez gain kostu ekonomikoak ez dugu ahaztu behar. Dena den, guraso eta irakasle haien buruhausteez, eta nola ez, ikasle haien ahaleginek emaitzak izan zituzten, eta sortu berria zen ikastola hartako ikasleak BBB eta LHra pasatutakoan beste eskoletako ikasleak bezain presatuak zeudela frogatu ahal izan zuten.

Ordutik aurrera ikastola hobetzen eta, beraz, haunditzen eta sendotzen joan da (nahiz eta hainbeste urte pasa ondoren, eskola pribatua izaten jarraitzeak, ikastolaren hasierako helburuetako bat ez dela lortu adierazi; publikotasunaren bidea jorratzen jarraitu behar dugula uste dut).

Hala ere, 25 urte pasa ondoren badugu erronka oraindik; unibertsitatean ikasketak euskaraz egiteko aukerak ez dira gehiegi eta egunero bizitzan gure hizkuntzaren erabilpen normalizaziorako bidea luzea. Aipatutako guraso hauei erreleboa hartuz, hauek dira gaur egun denon artean landu eta lortu behar ditugun helburuak.

Mila esker gurasoei gure hizkuntzaren alde eginiko lan guztiagatik, eta zorionak euskalzaletatik.

**Iñaki ARANA**



## Hiria ala jaioterria

Norberaren jaioterritik kanpo bizitzea askorentzat pozgarria da, are gehiago aldaketa hori hiri baterakoa izan bada.

Hiriak bere baitan herriak eskaini ezin dituen hainbat gauza dituela ukazina da, eta hirian bizitzearen aldeko apostua egin dutenek esan ohi duten legez, hiriaren kosmopolitismoak harrapatu ditu; kotxe eta jende andanan etengabeko burrunbak eta joan-etorriak ohargabeki iharduteko aukerak liluratu.

Badago, bestalde, arrazoi ezberdinengatik jaioterria utzi eta hirira joan behar izan duenik ere, eta hauetako batzuek ez dute horren zoragarritzat jotzen bertako bizimodua.

Herriak, hiri batek inoiz eskainiko ez dituen beste gauza batzuk baituela agerikoa da beraiarentzat.

Lehenengoentzat herria itogarria den bezala besteentzat nortasun adierazle eta babes eskaintzailea da, eta, era batean, bakardadetik ihes egiteko laguna.

Batzuek zein besteek hiri ala herriaren aurkako eta aldeko argudioak ematen dituzte, baina nork ez du noizean behin besterik ez bada ere, norbere herriko azaldu eta deskriba ezineko berotasun hori faltan botatzen?

**Monika BELASTEGI**

## IBARGUREN PENTSUAK


BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

## Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

## GISASOLA BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



■ **1949an jaiotakoen bazkaria**

Azken urteotako ohiturari jarraituz, **1949an jaiotako bergarrek euren anaiarteko eguna** ospatu zuten zapatuan. Guztira, 35 lagun inguru bildu ziren **Tartufo jatetxean** egindako bazkarian eta elkarrekin oso egun ederra igaro zuten. Bazkalostean dantza egiteko aukera izan zuten Tartufon bertan eta oraindik ere sasoi onean direla

erakutsi zuten 49ko kintoek. Ondoren juergagihoan jarraitu zuten herrian eta datorren urtean ere berriz biltzeko geratu ziren. Ea ba!!



■ **Barrenkalekoen bazkaria**

Barrenkaleko bizilagunek iragarritako bazkaria izan zen zapatuan Plazan. Eguraldiak ez zien lagundu, baina, hala ere, Barrenkaleko lagunak ez ziren kikildu. **Sierbetan hildakoen oroimenezko meza** entzun ondoren, Plazan, Seminarioko arkupetan, 200 bat lagun izan ziren bazkaltzen. Sukaldari, pintxe eta laguntzaileek gogor egin behar izan zuten lan Arrano elkartearen horrenbestendako bazkaria prestatzeko orduan. Primerako bazkaria egin eta, **trikitilarien laguntzarekin**, giro ezin hobez disfrutatu zuten Barrenkalekoek. Juergak aurrera egin zuen eta zenbaitzuk **afaria ere egin zuten Umore-Ona elkartearen**. Hauek ez ziren ez umore faltan egin...



**BERGARA**  
**Karrozeriak**  
 Txapa - Pintura  
 Zubieta, 46 BERGARA  
 ☎ 76 12 31

**YOSUNE ESTETIKA ZENTROA**

Simon Arrieta 3, behea BERGARA  
 ☎ 76 09 08, etxekoa 76 24 20

- GORPUTZAREN TRATAMENDUA:
  - DRENAJE LINFATIKOAK.
  - ZELULITISAREN AURKAKOAK.
- AURPEGIKO AZALAREN TRATAMENDUA.
- DEPILAZIOA.
- AURPEGIKO AZALARENTZAKO SOLARIUMA: 3 LANPARA BP.
- MAKILAIK: PIGMENTOEN MIKROINPLAZIOA.
- ESTETIKARAKO NAHI DUZUN GUZTIA.






■ **Udaltzainen kalitatea**

**Elgoibarreko Gestio Eskolan** ari den **Aniotz Gabilondo** bergararrak Elgoibarreko Udaltzaingoaren eta herritarren arteko komunikazioa bideratu eta zerbitzua hobetzeko asmoz

inkesta bat osatu du. Inkesta honen helburua kalitatearen hobekuntza jarraitua egitea da. Aniotzen hitzetan, *“belburua etengabe hobetzen saiatzea da, ondo dagoena ere beti bobetu daitekeelako, zirkulo moduko bat da hori”*. 14 galderaz osatutako inkesta egin du Aniotzek eta jasotako emaitzetatik abiatuta, zerbitzua hobetzeko ahaleginak egingo ditu bertako Udaltzaingoak. Argazkian, Aniotz Jabier Oñederra Elgoibarko sarjentuarekin.

**Zertan dihardute ba?**




**Edu Muruamendiaraz**

dantzari bergararrak Jaurlaritzak bultzatutako Euskal Koreografo Berrien I. Mostran hartu du parte, beste zortzi koreograforekin batera. Edu Muruamendiarazek “Aukeran” izenburuko lana sortu du eta bertan erromeria bateko giroa azaltzen da, neska eta mutilen artean ematen den harremanen jokoa isladatuz. Eduren koreografia honetan, berarekin batera, beste zazpi dantzari ari dira eta aukeratutako musika Tomas San Miguelena da. Gasteiz eta Lasarteko emanaldien ondoren, domekan, 20:30etan, Bilboko *La fundicion* aretoan izango dira.

■ **Mendi astea**

Mendi Astearen aurtengo edizioak ikusmin handia piztu du herritarren artean. Antolatutako diapositiba emanaldiek ohizko ikusleak erakarri dituzte **Miguel**



**Altuna institutuko, UNEDeko eta Novedadeseko aretoetara** eta jendeak gozatu egin du mendizaleek erakutsitako parajeekin.

**Gaur** arratsaldeko zazpi t´erdietan azken proiektzioa izango da **UNEDen Jon Lazkanoren eskutik**. Bestalde, domekako argazki **rallya bertan behera** geratu zen parte hartze eskasagatik.

Datorren urtean izan behar...



**Miguel Gimbert Hernan**

**ARROZTEGIA / EBANISTERIA**

Zokalo, ate, tarima eta armairuen kolokazioa eta era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN, Basabe Polig. A-2-5 Tf/F 79 15 71

**ZUBIETA**  
*elektragintza*

**MOTORREN BOBINAKETA ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK**

**Kruz Gallastegi, 2 behea**  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atekak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30



# Mila Agirrezabal

**Udal Liburutegiko arduradunak 13 urte daramatza liburu artean lanean, lehenengo Plazako liburutegian eta aspaldi honetan Kultur Etxean. Gaur egun 1.253 bazkide dira liburutegian eta orain bazkide txartelak informatizatzekeo prozesua jarriko da martxan.**

- Zela ospatu duzue Liburuaren Eguna?
- Oraingoz ez daukagu ospatzeko ohiturarik...
- Zenbat liburu daude liburutegian?
- 8.000 inguru.
- Zela konpontzen zarete irakurleak orientatzeko?
- Nobedade guztiak irakurri eta gure artean komentatuaz.
- Zenbat liburu irakurtzen dituzu urtean?
- Azkenaldian asko, 40 bat.
- Zer bilatzen duzu liburu bat irakurtzean?
- Denbora gustora pasatzea.
- Eta zein irizpide erabiltzen duzu liburu bat aukeratzeko?
- Kritika, liburuaren laburpena...
- Irakurri, egunez ala gaeuz?
- Normalean gaeuz.
- Literatur jenero bat?
- Narratiba, nobelak.



*“Liburutegiko irakurleak orientatzeko nobedadeak irakurtzen saiatzen gara. Lehen baino gehiago irakurtzen du jendeak eta, beharbada, helduak irakurle finagoak dira”*

- Zelako nobelak?
- Intrigazkoak eta historikoak.
- Idazle bat?
- Muñoz Molina.
- Behin baino gehiagotan irakurri duzun liburua?
- Ez dut liburutik bat bi aldiz irakurri.
- Sutarako baten bat?
- Ez, horrenbesterako ez...
- Orain zer irakurtzen ari zara?
- *Fuegos con limon*, Fernando Aranbururena.
- Bergaran asko irakurtzen da?
- Lehen baino gehiago.
- Gazteek ala helduek gehiago?
- Helduak finagoak igual...
- Idazlerik arrakastatsuen?
- Momentuan Christian Jacq.
- Eta euskaldunen artean?
- Atxaga.
- Ipuinak, irakurri ala entzun?
- Kontalari ona bada, entzun.
- Ipuin gustokoena?
- *Doña Karmen*, Itziar Zubizarretarena.
- Behar baino liburu gehiago argitaratzen dira?
- Ez dut uste.
- Denbora libre, zertan pasatzen duzu?
- Pasiatzen, irakurtzen...
- Herriko leku bat?
- Gorla ingurua.
- Mania bat?
- Atzazkalak jatea.
- Gustoko jantzi bat?
- Erosoa: prakak, nikia eta txaketaren bat.

## Siaska

Dena zure  
Inaurrergentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

## IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono, 761051

R.S.I. 209374-55

BERGARA

## Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

## BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimerak*

Urarte, 8 BERGARA  
☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77



**ETXEBIZITZA**

**Antzuolan** pisua eta gara-  
jea salgai. ☎ 76 62 15.

**Berrizteko** dauden bi  
duplex salgai Bidekurutze-  
tan. ☎ 76 57 36.

**Garajea** salgai Bolun.  
☎ 76 54 98.

**Etxebizitza** salgai Artza-  
mendin. ☎ 72 08 98 (gauzez).

**Pisua** salgai Donostian,  
Amaran. ☎ 76 31 79.

**Gela** bat konpartituko nu-  
ke. ☎ 76 91 33 (Iraide).

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 18 46.

**Pisua** alokairuan hartuko  
nuke. ☎ 76 57 55.

**Duplex** txukuna alokairuan  
Zarautzen, udan. Hondar-  
ztatik gertu. ☎ 83 56 36.

**Pisua** alokairuan Santo  
Domingo de la Calzadan,  
udan. ☎ 76 13 12.

**Pisua** salgai herri-erdian.  
☎ 76 25 31.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 42 65 (gauzez).

**Pisua** salgai Barrenkalen.  
☎ 76 41 38.

**Garajea** alokatzen da  
Ibargarain. ☎ 76 16 38.

**Pisua** salgai Mugertzan.  
☎ 76 53 79.

**Pisua** salgai Zarautzen.  
☎ 76 53 69/13 34 67.

**DENETARIK**

**Ordenagailua** eta inpre-  
sora salgai. ☎ 36 03 89.

**Seat Toledo** kotxea (SS-  
AL) salgai. ☎ 76 43 37.

**Setter** txakurra (txuri-bel-  
tza) galdu da Arrurriaga in-  
guruan. ☎ 76 57 36.

**Gasteizera** egunero ko-  
txez joateko jendea behar  
da. ☎ 17 34 03 (Ana).

**Canon** argazki kamarako  
hiru objetibo eta bi gorputz  
salgai. ☎ 76 39 96.

**Mendi** bizikletako John  
Luyck zapatilak salgai. 38  
zenbakia. ☎ 76 31 34.

**Fagor** berogailua (20 litro)  
eta Sony bideo kamara  
salgai. ☎ 76 24 02.

**Derby FDS** motorra sal-  
gai. ☎ 76 49 30 (Igor).

**Citroen Visa** kotxea sal-  
gai. ☎ 76 05 37.

**Roller-Aloha** karabana  
salgai. ☎ 76 39 96.

**Motorreko** kaskoa salgai.  
☎ 76 17 49 (gauzez).

**Flanders** mendiko bizi-  
kleta salgai. ☎ 76 47 94.

**Renault 5** kotxea (SS-O)  
salgai. ☎ 76 10 91 (gauzez).

**Renault 11** kotxea (SS-  
AC) eta Vespa 200 (VI-I)  
motorra salgai. ☎ 76 08 51.

**Mendiko** bizikleta (nes-  
kena) salgai. ☎ 76 46 90.

**LANA**

**Mate**, fisika eta kimika kla-  
seak. ☎ 76 70 40.

**Ingeles** klaseak ematen  
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Lanak** ordenadorez pasa-  
tzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Klinika** auxiliar batek gai-  
soak edo helduak zainduko  
litzuke. ☎ 76 64 47.

**Mate**, fisika eta kimika  
klaseak. ☎ 76 44 34.

**Garbiketa** lanak egingo  
nituzke. ☎ 76 71 21.

**OHO** eta BBBko klaseak  
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**OHO** klaseak ematen di-  
tut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Mate**, fisika eta kimika  
klaseak. ☎ 76 24 31.

**Haurrak** zaindu eta etxe-  
ko lanak egingo nituzke.  
☎ 76 70 90.

**Batxilergo** teknologikoko  
(lehen maila) elektronikara ir-  
kaslea behar da. ☎ 76 39 15.

**Irlandar** batek ingeles  
klaseak gaztelerazkoekin  
elkartrukatuko litzuke.  
☎ 907898339 (Catherine).

**Andrea** eskeintzen da su-  
kaldari, garbiketa edo ume-  
zain lanetarako. ☎ 76 70 85.

**Enpresaritzan** diploma-  
tuak OHoko klaseak em-  
aten ditu. ☎ 76 47 67 (Nere).

**Etxeko** lanak egin edo  
haurrak zainduko nituzke.  
Esperientzia. ☎ 76 70.15  
(8etatik aurrera).

**ETXAGI****J A T E T X E A**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

*Kizkur*

**ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**LAGUN ARO**

ASEGURUAK

**AGENTEA-DELEGATUA****Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00



# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR

## Aitzol Gandiaga

**Aitzol Gandiagak** jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Gorritz Gainekoa** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Aitzol Gandiagari** eman dizkiogu. Zorionak!!

*Bergarako zein kaletan daude balkoi eta begiratoki dotore hauek?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara




1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A Ze FLAXA ETXAGI	53	20	100	35
2. ERROTAGAIN	46	20	86	51
3. JAUJA OH ZEREZOS	39	20	87	51
4. BAR CANALEJAS	38	20	70	57
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	26	20	80	74
6. AZPEITXI JATETXEA	26	20	64	62
7. MADURA INDUSTRIAS GOI	23	20	55	81
8. OGIZUN	22	19	50	75
9. ORTZI	21	20	44	64
10. ARLOTEAK/OILAGORRA	20	20	66	48
11. PAGOMENDI	17	19	45	66
12. MONGATXURRA	14	18	47	74
13. UFALA	11	19	41	63

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ETXAGI	39	19	78	58
2. ARTUSAMAK BERGATRANS	33	20	75	56
3. AGIÑASPI	33	21	63	62
4. KAYAK OS JARDINEIROS	32	20	81	62
5. LA JUVE	30	20	71	61
6. HALTZARI	29	20	56	50
7. EZINLEIKE	28	21	67	77
8. SOROPOTROAK	25	19	46	46
9. AGIRREBERIA JATETXEA	24	18	59	56
10. ERI	23	19	56	77
11. INDARGORRI	20	20	47	98
12. AUTOBEREZI	19	20	72	95
13. UVE BIKOITZA JAM	0	0	0	0

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	51	21	88	36
2. FAC	43	19	90	44
3. PJS	35	20	75	55
4. JAKINA PATXARAN TEAM	33	21	83	63
5. NEKROFIKOS	33	19	72	68
6. TXIPIRON	32	19	62	46
7. NAHIKARI HOOLIGANS	30	22	72	63
8. MOSKIS	27	20	65	36
9. IGANDEKOAK	18	19	40	71
10. MRW	17	20	63	77
11. EH BITERRAK	16	19	43	64
12. GANBARA	16	20	63	82
13. CONSTRUCCIONES BERGARA	11	20	42	104

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	57	19	150	26
2. ARBE KIROLAK	50	21	123	46
3. ETENGABE	38	19	59	41
4. SLO	37	20	89	42
5. MATXAKATEGI	32	19	72	40
6. XURRUPAK	27	19	40	74
7. KOMANDO PIPERRAK	25	20	64	90
8. PATA NEGRA	21	20	43	69
9. PANORAMIX	20	20	66	124
10. AMILOTX	19	20	42	70
11. POLIDEPORTIVO TABERNA	13	19	43	104
12. ALDOKA MALDOKA	9	20	42	73
13. OSINTXU	0	0	0	0
14. PITTIXAK	0	0	0	0

## Jokoz kanpo



### Alberto Mendikute SOROPOTROAK

#### - ZER MODUZ TXAPELKETA?

- Nahiko ondo hasi ginen, baina azkenaldian ez dugu oso emaitza onik lortu. Halere azkenengo partidua irabazita hobeto gaude.

#### - ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA?

- Morala segituan jausten zaigu lurrera, baina animatuta gaudenean nahiko ongi ibiltzen gara.

#### - KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

- Ez.

#### - PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

- Berdin zait.

#### - TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

- Soropotroak.

#### - JOKALARIRIK ONENA?

- Inigo Herreros eta Arkaitz Arana.

#### - SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

- 24 eta 0 Ezinleikeri.

#### - ETA JASOTAKOEA?

- 11 eta 0 Ari Arik.

#### - ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

- Erdialdean.

#### - LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

- Agustín Aranzabal.

#### - MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

- Ronaldo.

#### - EUSKAL HERRIKOEA?

- Olano.

#### - JATEKO PLATER BAT?

- Espagettiak.

#### ■ EMAITZAK

UFALA-MADURA INDUSTRIAS GOI	4-5
SOROPOTROAK-AUTOBEREZI	2-1
KAYAK OS JARDINEIROS-AGIÑASPI	2-4
EZINLEIKE-LA JUVE	1-12
INDARGORRI-ERI	3-2
HALTZARI-ETXAGI	1-8
ARLOTEAK/OILAGORRA-BAR CANALEJAS	2-1
ORTZI-AZPEITXI JATETXEA	1-2
ARBE KIROLAK-ALDOKA MALDOKA	6-2
CONSTRUCCIONES BERGARA-MRW	0-3
NAHIKARI HOOLIGANS-GUADALEST	0-3
GANBARA-MOSKIS	0-7

#### ■ PARTIDUAK

##### Zapatuan barruan

09:00: FAC-MRW • PJS

10:00: PATXARAN TEAM-PJS • JAUJA OH ZEREZOS

11:00: OGIZUN-JAUJA OH ZEREZOS • PATXARAN TEAM

##### Zapatuan kanpoan

09:00: AMILOTX-PATA NEGRA • MOSKIS

10:00: NEKROFIKOS-MOSKIS • SLO

11:00: PANORAMIX-SLO • NEKROFIKOS

16:00: BILDURBAREK-PAGOMENDI • MONGATXURRA

17:00: ARLOTEAK/OILAGORRA-MONGATXURRA • PAGOMENDI

18:00: GANBARA-EH BITERRAK • ARBE KIROLAK

19:00: ARBE KIROLAK-KOMANDO PIPERRAK • EH BITERRAK

##### Domekan barruan

09:00: TXIPIRON-NEKROFIKOS • GANBARA

10:00: GANBARA-MRW • PANORAMIX

11:00: PANORAMIX-MANITOU • ETENGABE

12:00: ARBE KIROLAK-ETENGABE • XURRUPAK

13:00: POLIDEPORTIVO-XURRUPAK • ARBE KIROLAK

16:00: MATXAKATEGI-ALDOKA MALDOKA • NAHIKARI H.

17:00: IGANDEKOAK-NAHIKARI HOOLIGANS • FAC

18:00: FAC-MOSKIS • PAGOMENDI

19:00: UFALA-PAGOMENDI • OGIZUN

20:00: OGIZUN-MONGATXURRA • UFALA

##### Domekan kanpoan

11:00: SOROPOTROAK-KAYAK OS JARDINEIROS • ERI

12:00: HALTZARI-ERI • MADURA INDUSTRIAS GOI

13:00: MADURA INDUSTRIAS GOI-ERROTAGAIN • HALTZARI

16:00: EZINLEIKE-AGIÑASPI • ARTUSAMAK

17:00: ETXAGI-ARTUSAMAK • BAR CANALEJAS

18:00: ORTZI-BAR CANALEJAS • ETXAGI



## TXINPARTAK

**Bergarako frontenislariak bikain**

Deba Garaiko kirol zerbitzuek antolatutako lehenengo frontenis txapelketa joan zen larunbatean hasi zen Arrasaten. Guztira 19 bikote ari dira lehiari eta horietatik 5 bergararrak dira. Lehenengo jardunaldian emaitza bikainak lortu dituzte, bikote batek izan ezik gainontzekoek euren partiduak irabazi baitituzte.

**Elbarrituen kirolean aritzeko aukera**

Zapatuan goizeko 9etatik aurrera Eskola Kiroleko Alderantzizko Integrazioarako Bigarren Ihardunaldia jokatuko da Irala ikastolan. Eguerdiko ordu biak arte Bergarako ikasleek elbarrituen kirolean aritzeko aukera izango dute.

# Muguruza eta Redondo Deba arroko txapeldunak

**Joan zen** zapatuan Arrasaten jokatu ziren Deba arroko Pilota Txapelketa finaleran, Ibai Redondo eta Ander Muguruza bergararrak txapeldun geratu ziren kadete mailan, Eraña eta Alzola atxalbatarrei 22 eta 13 irabazi ondoren. Nagusien mailan, berriz, Iker Muruamendiaraz eta Idiakezek 22 eta 15 galdu zuten Elgeta ordezkatzuz jokatu zuten Ubera I eta Berraondo antzularren kontra.

Redondo eta Muguruzak gaizki hasi zuten partidua, eta galtzen joan ziren, baina jokoan sartzea lortu zutenean errez nagusitu ziren. Bi pelotari gazteak pozik azaldu dira lortutako garaipenarekin eta orain Elgetan antolatzen den txapelketarako gertatuko dira.

Nagusien partiduan, Berraondok bere kalitateak erakutsi zuen eta BKEko pilotarietako, osteraz, ez zuten pilota gozatu. Muruamendiarazek ez



Idiakez eta Muruamendiaraz bigarren postuan sailkatu dira.

zuen erakutsi berak daukan joko guztia eta hori azkenean ordaindu egin zuten.

**Bergara Hiria**

Bestalde, martitzenean jokatu ziren Bergara Hiria txapelketaren final laurdenetako azkenengo partidua. Martin bergararrak eta Sukiak galdu egin zuten eta txapelketa kanpo geratu dira. Egun berean, finalerdietan

rako zozketa egin zen eta nagusien mailan Muruamendiaraz eta Galartzak, Berraondo eta Auskinen kontra jokatuko dute; promesa mailan, berriz, Gutierrez eta Olaizolak, Saralegi eta Gastesiren kontra. Bi partidua maiatzaren 6an arratsaldeko 7:30etan jokatuko dira. Bestalde, datorren astean egingo da herri arteko txapelketako hurrengo kanporaketarako zozketa.

**Zabaleta onena Arraten**

Aitor Zabaleta kotxe pilotuak denboraldi hasiera bikaina egin zuen joan zen asteburuan, Arraten jokatutako mendiko kotxe igoeran errez nagusitu baitzen. Eibarko lasterketaren ondoren Zabaletaren asmoa Urbarasa joatea zen, baina kotxea oraindik puntuan ez daukanez, ez da Nafarroara joango. Horrela, bada, maiatzaren 17 eta 18an jokatuko den Jaizkibelgo Europa mailako lasterketa izango da korrituko duen hurrengo lasterketa. Bestalde, oraindik konfirmatu barik dagoen arren, Arabako Diputazioa izango da seguruen aurtengo denboraldirako babeslea.



## KARTELDEGIA

# Mikel Gallastegi

## Korrikalari gaztea

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Aretxabaleta

2. mailako kadeteak.  
Zapatua. 11:30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Anaitasuna

Ohorezko mailako kadeteak.  
Zapatua. 15:30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Santo Tomas

Ohorezko liga jubenilak.  
Zapatua. 17:15. Ipintza.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Arrate Txiki

Kadeta neskak.  
Zapatua. 17:45. Kiroldegia.

## ◆ Bergara-Aloña

Jubenil mutilak.  
Zapatua. 19:15. Kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Aletico SS

Kadete neskak.  
Zapatua. 16:15. M. Lagundia

## ◆ Bergara-Intxaurreondo

Junior mutilak.  
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

## ◆ Bergara-Alde Zaharra

Senior neskak.  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

## NESKEN 3.FUTBITO

## TXAPELKETA

## ◆ Power-LTB

Domeka. 16:00.  
Migel Altuna Institutua.

## ◆ Blue Star-PWA

Domeka. 16:00.  
Migel Altuna Institutua.

## ◆ The Hurrricanes-Burdinezko

Domeka. 17:00.  
Migel Altuna Institutua.

## ◆ Gu Geu-Nahikari TK

Domeka. 17:00.  
Migel Altuna Institutua.

**Mikel Gallastegik 10 urte ditu eta Zaleak atletismo taldean aritzen da. Azkenaldian jokatu dituen lasterketetan emaitza bikainak lortu ditu. Iurreta eta Eibarko krosetan 2. postua lortu du eta orain arte aritu den hainbat lasterketatan lehenengo postua lortu du.**

- Noiz hasi zara Zaleak atletismo taldean?

- Orain arte nere kontura ibili naiz eta aurtien Zaleak taldean apuntatu naiz. Antxintxiketan aritzea gustatzen zaidalako eta afizio handia daukalako nabil.

- Nondik datorkizu afizio hori?

- Lasarteko krosetan aitarekin eta bere lagun batekin izan nintzen eta krosa asko gustatu zitzaidan.

- Aurtien 3 lasterketatan aritu zara eta bi 2. postu lortu ei dituzu.

- Bai, Iurreta eta Eibarren 2. egin nuen eta Zumaiako lasterketara berandu heldu ginen arren, 10. postua lortu nuen. Iurretan lehenengoak alde haundi samarra atera zidan, baina Eibarren esprintean irabazi zidaten.

- Zenbat entrenatzen duzue?

- Astelehenetan eta asteazkenetan 5,30etatik 7etara entrenatzen dugu. Lehenengo, berotzeko Matxiategiko Aranzadi ikastolatik Otsein aldera joaten gara eta gero, luzaketa ariketak egiten ditugu. Ondoren joku ba-

tzuk egiten ditugu eta entrenamendua bukatzen dugu.

- Beste kirolki egiten duzu?

- Bai, futboleak jokatzen dut, erdialdean ezkerretik.

- Atletismoko ze proba gustatzen zaizu gehien?

- Distantzia motzeko probak gustatzen zaizkit. Abiadurazko probak.

- Lasterketetan zela irrtetzen zara?

- Hasieran azkar irrtetzen naiz, erdialdean polikiago joaten naiz eta gero, bukaeran, esprintatu egiten dut.

- Taldekideekin on-

do konpontzen zara?

- Bai, baina batzuetan pikatu egiten gara.

- Entrenatzaileari kasu egiten diozue?

- Bai, ondo konpontzen gara.

- Zailago zer, krosetan postu ona lortzea ala nota onak ateratzea?

- Nota onak ateratzea.

- Aranzadi ikastolak antolatutako duatloi mistoan zure mailan irabazi egin zenuen, ezta?

- Bai, Maialen Alkorta-ekin. Bera bizikletan aritzen eta ni antxintxiketan.

- Korrikalari bat?

- Martin Fiz da gehien gustatzen zaidana.



"Martin Fiz asko gustatzen zait".

**"Distantzia motzeko probak gustatzen zaizkit batez ere"**





Argazkia: Izaro Aperribai

## Jaunartzeak San Pedron orain 16 urte

**H**erriko 120 gaztetxo inguruk euren lehen jaunartzea egin dute azken bi asteotan Bergaran. Goiko argazkia, berriz, orain 16 urtekoa da eta San Pedroko eskilaretan aterata dago. Ohizko katekesi klaseen ondoren, egun horretan lehen jaunartzea egiteko gertu zeuden gaztetxoak. Dotore jantzi, nerbioak ahal zuten moduan gainditu eta meza ostean klik!!, erretratu, familiartekoen begiradapean.

Argazkia ekarri digun Izaro Aperribai gaur bertan Eskoziara joan da, Edinburgora, datozen hilabeteetan bertan lan egiteko asmoz. Goiko argazkian norbait agurtzen ari da eta oraingo honetak guk ere zorterik onena opa nahi diogu eskoziarrekin izango duen esperientzia berri horretan. Ondo izan eta hurrengora arte!!!

Hauetxek dira argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Patxi Osa, Mikel Gantxegi, Arkaitz Gabilondo, Miren Arregi eta Miren Lizarralde (be-taurrekodun andrea).

**Beherago:** Mikel Etxeberria, Unai Ziarsolo, Ander Garitano, Jesus Mari Arriaran, Xabi Lopez, Iñaki Padilla, Izaro Aperribai eta Iker Etxebarria.

**Bigarren ilaran:** Aritz Gallastegi, Mikel Etxabe, Onintza Zubia eta Leire Elizalde.

**Aurrean:** Miguel Angel Muela, Monika Gallastegi, Igor Ortiz de Urbina eta Leire Etxaniz.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

# MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

# zumelaga

## JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!**



SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerrek, 1 ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA




Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5 ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3 ☎ 76 14 12

# Bedelkarreko harategiak



# Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena



San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

Iosu eta Karmenxuri



Zubiaurre, 23 ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR



Jabier Lazpiur. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2 ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45



# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



**6** URTEKO  
GARANTIA

**FAGOR**



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak:  
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea.  
Telefona: 76 03 30. Faxe: 76 02 91